

OBRA USTIATZEKO ESKUBIDEAK LAGATZEKO KONTRATUA

_____ (a)n, 20 __ko _____ ren __ (e)an

BILDUTA

Alde batetik,

Eta bestetik,

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenak, bere izenean eta eskubidez.

Bigarrenak, EUSKAMPUSen izenean eta ordez

Bi alderdiek agiri hau sinatzeko gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri eta, xede horretarako:

ADIERAZTEN DUTE

1.- _____ dela jarraian deskribatuko den _____ obraren sortzailea:

2.- EUSKAMPUSek obra hori ustiatzeko eskubideak eskuratu nahi dituela, erakusgai jartzeko _____.

3.- Bi alderdiek obra ustiatzeko eskubideak eskualdatzeko interesa dutenez, honako estipulazio hauen arabera erabaki dutela eskualdatzea:

ESTIPULAZIOAK

Lehena.- Kontratu honetako 1. azalpenean deskribatutako " _____ " izeneko obraren

egileak EUSKAMPUSi eskualdatzen dizkio obra ustiatzeko eskubideak, jarraian zehazten diren baldintzen arabera.

Bigarrena.- Eskualdatze horren ondorioz, lagapen-hartzaileak, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bateginean ezarritakoaren arabera, obra hori jendaurrean jartzeko eskubideak eskuratzen ditu, azaroaren 13an eta 14an Bilboko Ingeniaritza Eskolan egingo den Euskampus Bordeaux Eguna 2023 ekitaldian egingo den erakusketaren barruan.

Halaber, egileak doan lagatzen dizkio EUSKAMPUSi, aipatutako erakusketaren ondorioz argitaratzen diren karteletan, sustapen-posterretan, katalogoetan eta gainerako elementuetan obra hori erreproduzitzeko, banatzeko eta jendeari ezagutzera emateko eskubideak. Erreproduzitzeko, banatzeko eta jendeari ezagutzera emateko eskubideen lagapen hori ez da Euskampusentzako eskusiboa.

Hirugarrena.- Lagapen-hartzaileak ezingo dizkie hirugarrenei eskualdatu kontratu honen xede diren ustiapen-eskubideak egilearen alde aurreko baimenik gabe.

Laugarrena.- Eskubide horiek eskualdatzeak ez du esan nahi, inola ere, egileari jabetza intelektualari buruzko lege-araudian jasotakoaren arabera dagozkion eskubide moral ukaezin eta besterenezinak eskualdatzen direnik, eta lagapen-hartzaileak uneoro aitortu beharko du obraren egiletza.

Bosgarrena.- Obraren egileak adierazten du eta bermatzen du bera dela lagapenaren xede den obra ustiatzeko eskubideen titular oso eta eskusiboa, eta lagapen-hartzaileari bermatzen dio modu baketsuan baliatu eta ustiatu ahal izango dituela kontratu honen arabera lagatuko eskubideak, hitzartutako baldintzetan.

Seigarrena.- Jabetza intelektualeko eskubideak doan eskualdatuko dira.

Zazpigarrena.- Kontratu honek izaera zibila du eta bere klausulen arabera arautuko da eta, horietan aurreikusi ez den guztian, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bateginean eta aplikagarria den gainerako ordenamendu juridikoan ezarritakoaren arabera.

Kontratu honetatik sor daitekeen edozein eztabaida ebazteko, bi alderdiak _____ (e) ko epaitegi eta auzitegien mende jarriko dira, berariaz uko eginez legokiekeen beste edozein foruri.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, alderdi esku-hartzaileek kontratu honen bi ale sinatu dituzte, ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

LAGATZAILEAK

LAGAPEN-HARTZAILEAK